

# ERRUMANIA

## “Periko Txoriburu”

Liburu honetan egileek Errumaniako herri-ipuín bat aurkezten digute kultura, leien-  
dak, kondairak, herriko ospakizunak, ohiturak eta gastronomia lagunduta. Gure ar-  
tean kanpotik etorri eta gurekin bizi direnek beraien kultura hobeto ezagutzeko bide  
ematen digute.

Bilduma honen helburua aniztasunaren aldeko apostua da. Kultura ezberdinen  
arteko elkarbizitzea, ezagutza eta errespetua landu nahi dugu

Kokapena  
Aurkezlea

Ipuína: “Periko txoriburu”

Txikitako pasadizoak

Ospakizunak

Gastronomia

Errezeta

Didaktika

# KOKAPENA

BANPIRO BAINO ASKOZ GEHIAGO



ERRUMANIA



ERRUMANIA EUROPAKO HEGO-EKIALDEAN DAGO ETA OSO EDERRA DA, ITSASO BELTZAREN PAREAN. HERRIALDEAREN DIRU ITURRI NAGUSIAK NEKAZARITZA ETA ABELTZAINZA DIRA. ZORIONEZ, ERRUMANIARRREN ARTEAN, ASPALDIKO OHITURAK OSO BARNERATUTA DAUDE.


ERDIALDEAN KARPATO MENDIAK DITUGU, TRANSILBANIAKO GOI-ORDOKIA INGURATZEN DUEN MENDIKATE HANDIA.

MUNDUAN ZEHAR OSO EZAGUNA DA DRAKULA KONDEAREN KONDAIRARI ESKER. NORK EZ DU EZAGUTZEN BANPIRO ISTORIORIK?



# AURKEZLEA

FLORA, SIVIUAN JAIOA, TRANSILBANIA, ERRUMANIA



Errumanian nire alaba, Betina, eta biok bízi ginen. Oso pobreak ginen. Eskolara umeak eramaten zituen autobusa ordaintzeko behar beste dirurik ez geneukan. Hori dela eta, Betina, egunero ordu bete lehenago altxatu ohí zen eskolaraino zeuden hiru kilometroak oinez egin ahal izateko.

Behin lagun batek Madrilerara joateko txartela eskaini zidan. Alabarekin hitz egin nuen. Alabak argi esan zidan biok Errumanian egotekotan ez

genuela aurrera ateratzeko modurik izango. Horrela, agian, ikasketak amaitzeko aukera izango zuen. Betinak, 17 urte zituen. Atzera begiratu beharrean, aurrera jo egin behar genuela esaten genion elkarri.

Erdararik ez, dirurik ez, ní neu, bakarrik. Ausardia baino beharra zen. Egun bitan ez nuen ezer jan, eta eskerrak lagun batek Marlinara etortzeko aukera eman zidala. Berak bere etxean hartu ninduen. Eta nire lagun honek niretzako topatutako lanari esker, orain familia osoa dago nirekin.





Hemen sei urte daramatzat. Jendeak asko lagundu dit. Markinaraino ailegatutako lehenengo errumaniar emakumea naiz ni! “Ezberdina” nintzenez gero, mundu guztiak nirekin berba egin nahí zuen, baina ez nekien euskaraz hitz egiten! Lehen-dabiziko hiru hilabeteetan ez nuen lanik ízan. Esaldiz zein hitzez bete nituen hiru koaderno. Egunero egunkariak irakurtzen nituen tutik ere ulertu barik. Telebista ikusi ahala bertan esandako guztia apuntatzen nuen. Orduan, etxera lagun bat etortzen zen, apuntatutako guztia zer esan nahí zuen azaltzen zidana. Horrela egunero. Eta apurka-apurka ulertzen hasi nintzen. Ezín nuen berba egin, baina ia den-dena ulertzen nuen. Beranduago, andre batek astebeteko lana eskaini zidan eta komunikatzen hasi nintzen. Ez dut inoiz klaserik hartu, ez dudalako izan, ez dirurik, ez astirik. Gurean errumanieraz egiten dugu, bilobarí gazteleraz egiten diot berba, hemen jaio da eta. Bere amarekin, ordea, alemanez eta ikastolan euskaraz. Lau hizkuntza dakizki! Berba egiten hasi orduko, ingelera ikas dezan nahí dugu, etorkizun ederra izateko ahalik eta gehien ikasi behar du eta.

Lan egin baino ez dut egin bizitza honetan. Urtarriletik erizaintzan tituluduna naiz eta erizain lan egin nahí dut. Aurten Betina ezkonduko da. Errumanian ospatuko dugu. Ezkontzan 300 lagun inguru bilduko gara. Ostean etorriko naiz eta lana bilatzen hasiko naiz, batez ere ez zaidalako zilegi iruditzen lana aurkitzea eta segituan alabaren ezkontzarako egun libreak eskatzea. Ez jauna, hori ez, dago batere ondo.

